



Mugaz gaindiko komunikazio eleanitza: erronkak, praktikak eta ikuspegiak



Uzt. 02 2025

Kod. I02-25

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 02 2025

Kokalekua

Cité des Arts. Baiona

Hizkuntzak

Frantsesa Gaztelera

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Mugaz gaindiko komunikazioa, berez eleanitza, Europako mugako eremuetan erronka garrantzitsua da. Lurralde horiek, integrazio europarraren laborategitzat jotzen direnak, hizkuntza eta kultura aberastasun paregabea dute. Hala ere, aniztasun horrek, indargune izan arren, oztopo handiak dakartza ikusgarritasunean, elkar ulertzean eta mugaz gaindiko ekintzen eraginkortasunean. Komunikazioa, ekimen publikoak eta pribatuak laguntzeko tresna nagusi gisa, hizkuntza-mugen ondorioz mugatuta geratzen da, bereziki sare sozialen eta komunikazio digitalaren papera funtsezkoa den testuinguru batean.

Hala ere, oztopo bat dirudiena, aldi berean, ingurune horietan bizi den komunitatearentzako erronka bat da, tokiko hizkuntzak baloratzeko eta gutxiengo hizkuntzak kultura arteko zubi gisa erabiltzeko. Horrela, maiz aurkitzen gara lingua franca-ak, ingelesa adibidez, komunikaziorako tresna bakarrak ez diren egoeretan.

Gaininformazioaren aro honetan, gardentasuna eta irisgarritasuna bermatzen dituen komunikazio baten bilaketa ezinbestekoa bihurtzen da mugaz gaindiko proiektuak balioesteko. Uda ikastaro honek hizkuntza-aniztasunaren, mugaz gaindiko egituren eta komunikazio digitalaren arteko elkarreraginak aztertzea du helburu, erronka horiei aurre egiteko praktika egokien identifikazioa eta estrategia zehatzak lantzeko. Ikastaroak arreta jarriko du "egin" eta "jakinarazi" bezalako bi kontzepturen arteko orekan, mugaz gaindiko proiektuen ezarpenerako ezinbesteko bikote batean. Egiteak ekimenen kalitatea bermatzen duen bitartean, jakinarazteak interesdun publikoen aurrean proiektu horiek baloratzeko ahalbidetzen du. Horregatik, komunikazio eleanitza lortzea ezinbestekoa da mugaz gaindiko ekintzen eragina maximizatzeko.

Mugaz gaindiko ikastaroen programaren espirituari jarraituz, ikastaro honek gai hauetan ezagutza eskuratzeko aukera eskaintzen du. Ekimen konkretu eta transferigarrien oinarrian, dimentsio parte-hartzaile eta aplikatua integratuz, gaitasunak eskaini edo indartzea du helburu.

Ikastaroak parte hartzaile guztientzako bultzada tresna izatea asmo du, muga gaindiko gaitasunak emanez. Oinarritzko praktika onak partekatuko dira eta gaiak aztertuko dira adibidezko ariketen bidez, parte hartzaileen ikuspuntua kontuan hartuta probatzeko aukera emanez.

Bestalde, ikastaroak parte hartzaileen arteko trukeetarako gurutze egoki bat izatea du helburu (hizlariak edo "publikoa" izan daitezkeenak), elkar ezagutzaren bidez, eta, zergatik ez, egun horretan zehar sortu daitezkeen sare informalean.

Jorratuko diren gaiak testuinguru nabarmenekin osatuko dira: gaur egun, munduan 7.000 hizkuntza inguru hitz egiten dira, eta horietako erdia desagertu liteke 2100erako. Europar Batasunean, 24 hizkuntza ofizial daude, eta biztanleriaren %30ak mugako eremuetan bizi da, lurraldearen ia %40 ordezkaturik. Zifra horiek komunikazio eleanitzaren inguruko hausnarketa sakon baten garrantzia azpimarratzen dute, mugaz gaindiko proiektuen garapenean duen paperari dagokionez.

Ikastaroa gai garrantzitsu hauetan zentratuko da: nola diseinatu komunikazio eleanitz eraginkor bat sare sozialetan, plataforma digitaletan edo inprimatutako materialetan, lurraldeen kultura eta hizkuntz espezifikotasunak errespetatuz; eta, gainera, hainbat mugaz gaindiko egiturak (elkarteak, administrazioak edo euroeskualdeak) ezarritako estrategiei buruz hausnartzea, haien publiko-helburuetara iristeko modua ulertzeko, bai eta noiz huts egiten duten ulertzeko ere.

Ondoko galderak gidatuko dituzte hausnarketak:

1. Nola komunikatu sare sozialetan, webguneetan edo inprimatutako materialetan hainbat hizkuntzatan, testuinguru mugaz gaindiko batean?
2. Nola kudeatu modu eraginkorrean hizkuntza-aniztasuna, komunikazio argi eta eraginkor baten kodeak errespetatuz?
3. Nola antolatzen dira mugaz gaindiko egitura desberdinak erronka horiei aurre egiteko, eta zer ikaspen atera daitezke horretatik?
4. Nola garatu hizkuntza-aniztasun gaitasunak mugazgaindiko eragileentzat (mugaz gaindiko egituren kideak zein haien helburuko komunitateak) ?

Hizkuntza-aniztasuna, mugaz gaindiko proiektuak dituztenak eta komunikazio sozio-digitala perspektiban jarritz, ikastaro honek gaur egungo mugak gainditzeko eta mugaz gaindiko ekimenek duten eragina maximizatzeko ekintza-lerroak identifikatzeko aukera emango du.

Helburuak

Komunikazio eleaniztunaren erronkak aztertzea mugaz gaindiko testuinguru batean.

Hizkuntza-aniztasunak mugaz gaindiko proiektuen ikusgarritasunari, argitasunari eta eraginkortasunari nola eragiten dien ulertzea, eta proiektu horrek dituen oztopoak eta aukerak aztertzea.

Komunikazio eleanitzean gaitasun praktikoak garatzea

Parte-hartzaileak eduki eleanitzen kudeaketan prestatzea, hainbat euskarritan (sare sozialak, web-plataformak, inprimatutako materialak), komunikazio argi eta eraginkorraren kodeak errespetatuz.

Mugaz gaindiko lankidetzak eta sareen sorrera sustatzea

Parte-hartzaileen, doktoregaien, profesionalen eta mugaz gaindiko egituren arteko trukeak sustatzea, sinergiak sortzeko eta etorkizuneko lankidetzaproiektuetarako elkarteak abiarazteko.

Mugaz gaindiko egituren jardunbide egokiak eta estrategiak aztertzea

Mugaz gaindiko komunikazio arrakastatsuen adibide zehatzak aztertzea eta parte-hartzaileen proiektu eta erakundeei aplikatu dakizkiekeen lezioak identifikatzea.

Komunikazio inklusiboago eta berritzaileago baterako tresnak eta ikusmoldeak proposatzea

Metodoak eta teknologiak aurkeztea, hala nola tresna digitalak eta multimedia-tresnak, mugaz gaindiko komunikazioa eskuragarriagoa eta publiko desberdinei egokituagoa izan dadin.

Egitearen eta jakitera ematearen arteko orekari buruzko hausnarketa kolektiboa sustatzea

Parte-hartzaileak kontzientziaztea garrantzitsua dela trebetasun teknikoa eta komunikazio eraginkorra konbinatzea, mugaz gaindiko ekintzen inpaktua maximizatzeke.

Mugaz gaindiko lurraldeetan lankidetzaren indartzea

Komunikazio eraginkor baten abantailak nabarmentzea, mugaren bi aldeetako erakundeen, gizarte zibilaren eta tokiko eragileen arteko harremanak hobetzeko, horrela Europako integrazioa sendotzen lagunduz.

Programa

2025-07-02

09:00 - 09:15	Accréditations
09:15 - 09:45	“Introduction”Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Introduction Javier Arakama Urtiaga Gouvernement Navarra - Director gerente de Euskarabidea Transfrontalier, communication & plurilinguisme Albert Branchadell Comité d'experts de la Charte Européenne des langues régionales et minoritaires, Conseil de l'Europe - Vice-président du comité d'expert de la Charte Européenne des Langues minoritaires
09:45 - 11:00	Mahai ingurua: “Perspectives académiques : enjeux et défis de la communication plurilingue transfrontalière” Le paysage linguistique des organisations transfrontalières sur le web Marie-Hélène Hermand Université Bordeaux Montaigne - Maitre de conférences (Zoom bidez parte hartuko du) Border Languageing: Multilingual Practices in Research and in Everyday Life Eva Nossem UniGR-Center for Border Studies - Scientific Coordinator of the UniGR-Center for Border Studies at Saarland University Estitxu Garai Artetxe EHU-UPV - Bizkaiko Campuseko eta Komunikazioko Errektoreordea
11:00 - 11:30	Atsedena
11:30 - 13:00	Mahai ingurua: “Stratégies et outils institutionnels : valoriser le plurilinguisme dans sa communication transfrontalière” Communication plurilingue sur les réseaux sociaux : analyse comparative de quatre GECT Marie Heguy-Urain GECT Eurorégion Nouvelle-Aquitaine Euskadi Navarre / Hendaye - Responsable de la communication Favoriser la présence de langues minoritaires sur les réseaux sociaux Xavier Bernard-Sans GECT Eurorégion Pyrénées-Méditerranée - Directeur Méthodologie pour une communication plurilingue Itxaso Etxebarria Lekanda Euskampus / Leioa - Zabalkunde eta Eleaniztasunaren Burua
13:00 - 14:00	Pause Déjeuner
14:00 - 15:00	Mahai ingurua: “Pratiques du terrain : défis et solutions pour une communication plurilingue transfrontalière intégrant l’euskara comme langue commune” Culture Irene Larraza Aizpurua Etxepare institutua - Zuzendari nagusia

Société civile

Eneko Gorri Gantier | Plazara - Kolektiboko kidea

Industrie

Lohitzune Txarola Gurrutxaga | Langune - Zuzendaria

Enseignement

Leire Gaceo Melgosa | Eusko ikaskuntza / Gobierno Vasco - Komunikazio arduraduna

Economie

Arthur Saulnier | Groupe AGOUR - Responsable de Ressources Humaines

15:15 - 15:45

Ateliers participatifs sur les pratiques communicatives plurilingues

15:45 - 16:00

Itxiera

Arola Urdangarin Ferreira | GECT Eurorégion Nouvelle-Aquitaine Euskadi Navarre /
Hendaye - Directrice

Zuzendaritza



Marie Heguy-Urain

Eurorregion Nueva-Aquitania Euskadi Navarra

Irakasleak



Javier Arakama Urtiaga

Director gerente de Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera.



Xavier Bernard-Sans



Albert Branchadell



Itxaso Etxebarria Lekanda

Euskampus Fundazioa

2012tik, Euskampus taldeko kidea. Une horretatik aurrera, dudan profil balioaniztunari eta laueleduna izateari esker, askotariko izaera eta konplexutasuneko aupadei aurre egin diet, besteak beste, Ezagutza Guneen lankidetzat ikerketan; zehazki, Komunikazio Globaleko Heraklito Gunean edo gure nazioarteko topaketen koordinazioa: Euskampus Bordeaux Eguna. Filosofia eta Letretan lizentziaduna, Ingeles Filologiako sekzioan, Deustuko Unibertsitatean. Unibertsitate ikasketa Université de Pau-et des Pays de l'Adour-en osatu nituen. Masterra Kanpoko Merkataritzan UPV/EHUko Elkano Enpresa Ikasketen Eskolan (MACEX), masterra Enpresa Kudeaketan UPV/EHUko Bilboko Ingeniari Eskolan (GECM) eta Euskaliteko ebaluatzailea. Egun European Master on Multilingualism and Education amaitu berria,

UPV/EHUko Filosofia Hezkuntza eta Antropologia Faktultatean, DREAM, Donostia Research Group on Multilingualism and Education ikertaldea buru dela. Gaur egun, nire ikerketa-arloak eleaniztasuna du ardatz, gizarte-kohesiorako tresna gisa, nortasun pluralak eraikitzea eta partekatzea erraztuko duten tresnak eta dinamikak aztertzeko. Oraingoan, Doktoretza ikaslea naiz, Hizkuntza, Hezkuntza eta Gizarte arloaren programan hain zuzen ere.



Leire Gaceo Melgosa

Eusko Ikaskuntza

Publizitate eta Harreman Publikoetan lizentziatuta dago. Zuzendaritza komertziala eta marketineko masterra du eta bai berdintasunean, bai komunikazio korporatiboan formakuntza jarraia jaso du (komunikazio korporatiboa, erreputazioa, bezeroekiko harremana, inpaktua, estrategia). Ia 7 urtez Euskal Herriko diasporari zuzendutako EuskoSare proiektu eleanitza kudeatu zuen. Egun, Eusko Ikaskuntzaren Komunikazio arduraduna da eta 10 urte baino gehiago daramazki, besteak beste, erakundearen komunikazio estrategiak lantzen, lan taldeak zuzentzen, plan digitalak garatzen, sareak kudeatzen, ekitaldiak diseinatzeko... Eta hori guztia bereziki Euskal Herriko eremuan jardun eta harremanak den publiko eleanitz bati zuzenduta.



Estitxu Garai Artetxe

Euskal Herriko Unibertsitatea

Doktorea da Ikus Entzunezko Komunikazioan eta Publizitatean eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. Aurretik, Publizitate eta Harreman Publikoetan lizentziatu zen eta Gizarte Komunikazioa masterra egin zuen. Ikerlari Bisitaria izan da New York-eko unibertsitate publikoan eta Irlandan, Limerickeko Unibertsitatean. Bere ikerketa jarduna hizkuntza gutxituetan eta feminismoan oinarritu du; ikergai nagusiak publizitate elebiduna eta patriarkatuaren bertsio mekanismoak izan dira. Gaur egun, hizkuntza markagintza aztertzen dabiren taldea zuzentzen du. Berria Taldeko Administrazio Kontseiluko kide izan zen 2016-2020 epealdian. Gizarte mugimendu ezberdinetako partaidea da eta analista politiko gisa ere aritzen da euskarazko komunikabideetan: Argia, Berria, ETB1, ETB2, Euskadi Irratia eta Hamaika TB, besteak beste. Horretaz gain, ibilbide profesionalean, enpresa eta erakunde publiko ezberdinen komunikazio-aholkulari gisa dihardu.



Eneko Gorri Gantier

Postgrade Soziolinguistika Aplikatua EHUn. Irakaskuntzan/Formakuntzan ibilia (Etxepare lizeoan irakasle, Udako Euskal Unibertsitatean formakuntza arduradun, Erabil Kolektiboan formatzaile...). Luzaz Miarritzeko herriko etxeko hizkuntza politika zerbitzaburu egona. Plazara kooperatiboko sortzaile taldeko eta gaur egun animatzaile.



Marie Heguy-Urain

Eurorregion Nueva-Aquitania Euskadi Navarra



Marie-Hélène Hermand



Irene Larraza Aizpurua

Etxepare Euskal Institutua

Komunikazio Zientzietan lizentziatua Nafarroako Unibertsitatean eta kulturaren eremuan ibilbide luzea egina, Irene Larraza Aizpurua (Tolosa, 1970) erantzukizuneko lanpostuak bete izan ditu komunikazioaren eta kultur kudeaketaren eremuetan. Hasiera batean, Herri Irratian esatari eta erredaktore lanetan aritu zen hiru urtez. Ondoren, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko Sustapenaren eta Hedapenaren arduradun izan zen hiru urtez, eta zortzi urtez izan zen Syntorama

musikarien ordezkaritza-agentziako Sustapenaren, Komunikazioaren eta Editorialaren arduradun. 2008 eta 2012 urte bitartean Tolosako Udalean garatu zuen bere ibilbide profesionala Kulturako Koordinatzaile eta Zuzendari gisa. 2012az geroztik, Etxepare Euskal Institutuaren taldeko kide da Larraza. Bertan, Komunikazio Arduraduna izan zen aurrena, eta 2016ko azaroaz geroztik Kulturaren Sustapen eta Hedapen Zuzendaria hurrena. 2018tik da Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria.



Eva Nossem

Graduate translator for German, English, and Italian. She is the scientific coordinator of the UniGR-Center for Border Studies at Saarland University (Germany). She is the co-editor of the trilingual Border Glossary, a collection of key concepts in the field of border studies, and the editor of Border Linguaging, a volume focusing on multilingual practices on the border. She is an instructor in English linguistics at Saarland University. Her work is situated in the fields of Cultural and Linguistic Border Studies. Both in her teaching and research, she aims at bringing together approaches from gender/queer studies, cultural studies, and linguistics, with a particular focus on critical discourse studies, multilingualism, lexicography, and sociolinguistics.



Arthur Saulnier



Lohitzune Txarola Gurrutxaga

Langune, Euskal Herriko Hizkuntza Induestrien elkarteko zuzendaria 2019 urtetik. Zuzenbidean lizentziatu ondoren, nazioarteko zuzenbidera bideratu zuen espezializazioa eta bere lehen lan esperientziak Bruselan garatu ziren, nazioarteko alorrean. Euskara izan da hala ere beti bere hizkuntza nagusia, baita lanean ere eta nazioarteko alorretik bere garrantziaren defentsa izan du gizpide. Euskal Herrira itzuli ondoren, politikan urte batzuk ibili ondoren, LAGUNEn sartu zen, hizkuntzak herrian duten aberastasunaren islada erakusteko.



Arola Urdangarin Ferreira

Sciences Po Bordeaux-en eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoan Zientzia Politikoetan lizentziatua, Europako gaietan espezializatua, Sciences Po Bordeaux-en “Carrières Européennes” Masterra egin ondoren, 2015etik Akitania-Berria Euskadi Navarra Euroeskualdean lan egiten dut eta 2019tik zuzentzen.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-07-02 ARTE
Mugaz Gaindiko Uda Ikastaroak	0 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2025-07-02 ARTE
Mugaz Gaindiko Uda Ikastaroak	0 EUR

Kokalekua

Cité des Arts. Baiona

3 Av. Jean Darrigrand, 64100 Bayonne, Francia.

Akitania